

# EHORZKETAK... HILEN MEZAKO KANTYAK

## 1 BETIEREKO ZORIONA

Betiereko zoriona  
Hil huni, otoi, eman, Jauna :  
Betiko argi zabalean  
Zure argiak argi dezan.

Zuri Jainkoa, esker kantu,  
Dei entzuleak hartze baitu.  
Zion gainean zuri kantu,  
Zuri eskaintzak zuri botu. Betiereko...

Gizon bakotzak beharko du  
Goiz edo berant zuganatu.  
Hobenen zamak hausten gaitu :  
Noiz behar duzu, noiz barkatu ? Betiereko...

## 2 PIZTU NAIZ PIZTU

Zure etxerat goaz, Jauna  
Hauxe da gure zoriona.

1. Piztu naiz piztu baitut entzun :  
« Goazen Jaunaren etxeraino ! »
2. Hara nun orai bagaituzun,  
Jerusaleme atean so.
3. Jerusaleme hiri gaitza,  
Denen biltzaile den bihotza.
4. Jaunaren haurrak, haurrak oro  
Horrat doatzi lerro-lerro.

3 *Piztu da Kristo, alleluia !  
Gu baitan dago, alleluia !*

4 *Jauna orhoit zaite, zoin gaituzun maite  
Erakuts guri Jauna, zure bihotz ona...*

5 *Kristo bizi da, bizi, lehen orai beti.  
Kristo guretzat hila guretzat emana  
Horra hor zaitugula osperat igana  
Erran bezala Kristo, berriz ere zato !*

## 6 JESUSEN BIHOTZA ZGIN MAITEA

1. Jesusen bihotza, zoin maitea,  
zu zare neure guzia  
Zu gana bakarrik izanen da  
betikotz ene lehia.

Adora, ohora dezagun orok egun,  
Gure Salbatzaile ona.  
Helaraz, helaraz gaitzazu zerurat,  
Zu ganat, zure loriar.

2. Nork erran Jesusen bihotzerat  
ez dakiela bidea ?  
Soldadoak lantaz ideki du  
guretzat hango bidea.
3. Munduko edozoin lore baino  
ederragoko delarik,  
zergatik hain bihotz maite hori,  
arantzez dago beterik.

## 7 DOHATSU

Dohatsu, bai dohatsu !

1. Dohatsu bihotz barnez pobreak :  
Heiena baita zeruetako Erresuma.
2. Dohatsu laño eta eztiak :  
Jaunak hitzeman lurrar baitire jabetuko
3. Dohatsu nigarretan direnak :  
Kontsolamendu izanen dute Jauna  
ganik.
4. Dohatsu zuzen gose direnak :  
Heien goseak bere asean ukanen du.
5. Dohatsu urrikalkor direnak,  
Urrikalmendu ardiesteia segur dute.
6. Dohatsu gardi diren bihotzak,  
Heiek baitute Jaun zerukoa ikusiko.

## 8 GUREKIN EGON

Gurekin egon gurekin Jauna  
Oraino dugun hitz egin  
Heldu da gaua ilun iluna  
Gurekin egon gurekin.

1. Zertaz mintzo zinezten bihotz ilun  
Ibiliz hola bihotz ilun ?  
Hara Jerusalemen heren egun  
Jesus hil dela heren egun.
2. Gutarteko jendeak bizi dela  
Omen dabilta : bizi dela  
Gizon zentzugabeak, zoin epela  
Zuen bihotza zoin epela.

## 9 ZATOKKIOTE

Zatokiote, Jaunaren Saindu dohatsuak ;  
Zatotez laster hunen biderat, Aingeruak.  
Hunen arima har, ereman :  
Eskain zazue Jaun Goikoaren  
aintzinean.

Betiereko zoriona  
Hil huni, otoi ! Eman, Jauna ;  
Betiko argi zabalean,  
Zure argiak argi dezan.

Hunen arima har, ereman :  
Eskain zazue Jaun Goikoaren  
aintzinean.

## 10 ZERUA SARITZAT

1. Zerua saritzat, fededunak dohatsu  
Bihotz barnez izanik lurrean behartsu.
2. Zerua saritzat, bihotz urrikalkorrez  
Urrikalduren baita Jainkoa ordainez.
3. Zerua saritzat, Jaun onak emanen du  
Hemengo nigarrari han urrikalmendu.

## 11 KRISTO GANIK

Kristo ganik zerk urrun, nork berex gu ?  
Jainko dugu : gu baitan da bizi.  
Dugularik lan, gudu, gaitz eta min,  
Kristorekin lur huntan zerk izi ?

**Ikusten dut zerua zabaldua :  
Han behar dut egun batez sartu.  
Bai, Kristok du mundua garraitua :  
Zeruraino eremanen gaitu.**

Mundukoen zaintzale gurekin da :  
Hari galda goi argi, goi indar.  
Haren argi dirdiran, bat gaiten joan :  
Ilunbetan gaitzeri gaur oldar.

## 12 AMA MAITE MARIA

Ama maite Maria, egiguzu lagun,  
Zure bitartez Jesus ikusi dezagun. (bis)

Aingeruzko lilia, estimagarria,  
Usain gozozko lore zerutik jautsia.  
Gorde gaitzazu, Ama guziz maitatua.  
Ez dezagun zikindu bertute garbia.

Egizu, Ama ona azken orenean,  
Oren lotsagarria hurbiltzen denean,  
Izan dezagun orok Jesus bihotzean.  
Zurekin har gaitzazu zeruko lorian !

13 **G**URE AITA, zeruetan zirena  
Saindu izan bedi zure izena  
Etor bedi zure erreinua,  
Egin bedi zure nahia  
Zeruan bezala lurrean ere.  
Emaguzu gaur egun huntako ogia.  
Barkatu gure zorrak  
Gure ere gure zorduner  
Barkatzen diegunaz geroz,  
Eta ez gu tentaldirat ereman  
Bainan atera gaitzazu gaitzetik.

## 14 LURDEKO LOREA

Lurdeko lorea, Ama paregabea  
Betikotz da zurea, Eskualdun jendea.

1. Oro dira hemen zuri beha jartzen,  
Arimak goratzen, eriak sendatzen.
2. Oi zu erregina handi puxantena,  
Beha gure ama, ametan maitena.

15 **A**GUR MARIA, graziaz bete  
Jauna da zurekin,  
Benedikatua zare  
Emazte guzien artean,  
Eta benedikatua da,  
Zure sabeleko fruitua Jesus.  
Maria Saindua, Jainkoaren Ama,  
Egizu otoitz gu bektorosentzat,  
Orai eta gure heriotzeko orenean.  
Halabiz.